


Sagardo garaian behar bezala portatzeko aholku zerrenda bat kaleratu du Astigarragako Udalak. Parranda eta jai giroaren alde daude herritarrek, baina gehiegikeriarik ez egiteko eskatzen diete bisitariei

III Estitxu Elduainen

«Txotx» oihuaren atzean sagardo trago bat ezkutatzen da normalean. Sagardo trago baten atzean beste bat ezkutatzen da, eta gero beste bat eta beste bat. Jana ere oparo izaten da sagardotegietan, baina normalean edanak gehiago erasaten du; bere ondorioak nabarmenagoak dira behintzat. Bestela galdetu Astigarragako herritarrei. Urte osoan herri txiki eta lasaia dena jende multzo handien bilgune bihurtzen da sagardo garaian, eta urte osoko bakearen tokia parranda eta iskanbila nagusitzen dira.

Jai giro hori gustuko dute Astigarragakoek, «azken finean herriari bizitasuna eta alaitasuna ematen baitio». Hala dio Leire Ollokiegik, herri horretako Agenda 21 elkarteko kidea. Baina bere alde txarra ere badu, batik bat heritarrentzat: «ordu txikietan kalean egoten den soinuk loa galarazten die herritarrei, kaleak oso naras eta zikin esnatzen dira goizetan...». Kexatzeko motiborik ere badute, beraz, Astigarragakoek, eta bakarren batzuk kexatu ere egin dira.

Horri irtenbidea emateko asmoz ekimen xume bezain simple bat jari dute abian Astigarragan. Iragan asteburutik, sagardotegietara etorritakoan behar bezala portatzeko aholkuen zerrenda bat egin dute, eta sagardotegi guztietan banatu. «Oinarri-oinarrizko aholku batzuk dira, gubxienezko errespetu portaera batzuk eskatzen dizkiegu sagardotegietara etortzen direnei, ahalegintxo txiki-txiki bat», azaldu du Ollokiegik. Hala, sagardotegietan behar bezala portatzea eskatzen diete, bertako ohiturak errespetatzea eta barrabaskeriarik ez egitea. Kalera jaitsitakoan, berriz, kaleko objektuak errespetatzea nahi dute, edalontziak kalean botata ez uztea, edo eta kalean txizirik ez egitea. Gidariarentzat ere badute aholku bat: herrian jarrita dauden aparkalekuak erabiltzea eta udaltzainek esandakoari jaramon egitea: «gezurra badirudi ere,



Txotx bai, baina txotxatu gabe

sekulako kaosa eta iskanbila sortzen da askotan auto eta autobusekin. Uste baino zarata gehiago ateratzen dute, gainera, autobusek, martxan daudenean», aipatu du Ollokiegik.

Iragan ostiraletik Astigarrako sagardotegi guztietan aurkituko duzue aholku horiek jasotzen dituen ormitxo bat. Sagardotegi guztietako mahai guztietan jartzea da asmoa, ahalik eta bisitari gehienek eskura iristeko. «Papertxo txiki batzuk dira, eta hasiera batean pentsatu daiteke inork ez diola jaramonik egingo. Baina seguru gaude, mahai gainean utziz gero, baten batek irakurriko duela», uste du Ollokiegik. Eta behin irakurrita aholkuak beteko dituztenaren esperantzan dira Astigarragakoak. Izan ere, euren helburua ez omen da parranda eta festa giroa zapuztea: «Hona etortzen denak ondo pasatzea nahi dugu guk, parranda eta festa egitea, baina aldi berean, une horretan goiko etxea lo dagoenarekin apur bat gogoratzea eskatzen diegu, besterik ez», azaldu du Agenda 21eko kideak.

Astigarragako herritarrek ez ezik, tabernariak, sagardogileak eta udaleko ordezkariak ere hartu dute parte ekimen honetan. «Sagardo garaia hasi zenean planteatu genuen kontua, eta sagardogileak eta tabernariak ere bat etorri ziren, azken finean euren mesederako ere bai baita», gogoratu du Nerea Ollokiegik. Baikor daude, gainera, astigarragatarrak, papertxo horiek gauzak hobetzen lagunduko dutelakoan baitaude: «azken finean jendea, normal portatzeko eskatzen diogu, errespetuz jokatzera, eta jende gehiena horretarako prest dagoela sinesten dugu», aipatu du. Inguruko herrietan gisa honetako ekimenek arrakasta izan dutela ere badakite, gainera. «Hermanin, esaterako, iaiz atera zituzten gisa honetako papertxoak eta oso balorazio ona egiten dute bertakoek», Agenda 21eko kidearen esanetan. «Okerrerako ez da izango behintzat, eta ez da gutxi».



III Sagardotegi barruko ohiturak errespetatzeko ere eskatzen dute. Jon Urbe / argitzi press

SEI AHOHKUAK

1. Sagardotegiko ohiturak errespetatu. Ezagutzen ez badituzu, nagusiarri galdetu.
2. Udaltzainek emandako oharrak errespetatu. Autoa eta autobusa non eta nola aparkatu esango dizuzte.
3. Tabernetako komunak erabili, irekita aurkituko dituzu eta.

4. Ez atera edalontziak tabernetatik.
5. Zaindu herriko tresneria: zaborrontziak, eserlekuak, argiak...
6. Ez galarazi herritarrei loa goizaldeko orduetan. Errespetatu tabernen orduetgia eta saiatu kalean zalaparta gehiegi ez egiten.